



254. zenbakia

• Iraila 2025 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



URA BIZITZAREN EMAILE

Bidaia - 2025ko ekaina

Goizaldeko lehen eguzki izpiek Agustin ernatu dute. Emeki emeki ohatzea ireki, ertzean eseri, egun berria hartzeko prest.

Agustinek hirurogeita hemeretzi urte ditu, bakarrik bizi da Haritzondo herriko etxe txiki batean, inguruan lur sail xumea duena.

Sukaldera zuzendu da gosaltzera. Amaitzean mugikorra piztu du. Haraneko whatsappan mezua dago. “Ura zikin berriz ere. Deitzeko ahal duen guziak”.

Segituan udal etxetik bertze whatsapp bat. “Abeltegiko isuriak direla-ta, goizeko hamaiketan bizilagun guziei dei egiten dizuegu bilkura batera udaletxean hartzeko neurriak adosteko”

Agustinek ukabikoa ematen du mahai gainean. “Kaka zaharra!”. Sukaldeko leihoa zabaldua oihukatzen du, “maite zaitut erreka!”

Maddalena bizilagunak, leihoa zabaldu du.

- “Agustin! Ongi hago?!”
- “Bai, baina harana galtzear zegon”.
- “galtzear?”
- “Errekan abeltegiko isuriak, iseka izugarri bezala”
- “zer egin ba?”
- joanen naun Udaletxeko bilkurara, nahi dun etorri?”
- “Hoa, hoa...! Segituan heldu nauk”

Agustinek izara zaharra armariutik aterita, langelatik margo gorri poto eta brotxa hartu ditu. Izara zoruan zabaldua, idazten hasi da.

Pankarta egina, etxetik abiatu da, oinez, herri arteko xendabidetik.

Udaletxera ailegatzean bilkuren gelan sartuta, pankarta zabaldu du. “Goazen abeltegira, behin betirako afera konpontzera!”

Marmarrek betetzen dute espazioa...

Supituan atearen orpoan besoak altxatuta Maddalena ageri da.
“Bat egiten dut Agustinekin! Goazen!”

Agustin eta Maddalena pankartari eutsi diote.
“Goazen denok elkarrekin eta oinez, bidetikan lagun gehiago bilduz! Goazen!”

Pankarta zabaldua abiatu dira. Jende gehiagok eutsi dio pankartari.
Martxa aitzinera doa, herriz herri, biztanle ugari bilduz.

Abeltegira iritsita bulego parean gelditu dira.
Abeltegiko langileak gelditu dira. Zuzendariak bulegoko leihoa zabaldu du.

- “Zer duzue?”
- “Pankarta irakurri!”, herritarren koruak

Eta pankartan, “URA BIZITZAREN EMAILEA DA”

Oihua zabaldu da haranean, “isuri gehiagorik ez!”

Ugazaba desageri da.

Agustin herrikidei zuzentzen zaie

“Gu, erreka bezala, lagunok, natura gara. Natura elkar-tasunaren eredu da. Irtenbidea guk dugu. Har deza-gun mezua!”

Abeltegi bulegoko leihotik herritarren abiada bi begi ilunak behatzen ari dira



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Levelibular zirkoa Lantzen, Nafarroako Gobernuaren Kultur ekimenean. Argazkia: Jose Enrique Olcoz.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira irailaren 3an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. Aizarozko Kontzejua

07

Ingurumena. Orkidea

08

Kronika. Denok Bat jubilatuen elkarte

10

Albisteak.

14

Ekimenak. Palestinaren aldeko martxa

16

Herrian bertan. Iraizozko supermerkatua

20

Elkarriketa. Amaia Iraizotz, Anueko eguna



22

Aspaldiko kontuak. Oskotz eta Erriparen lotura

25

Berezia. Udako postalak

26

Ardo freskoa. Juanbaldar

28

Kirola. Herri-kirol apostua

30

Zer irakurri. Palestinako literatura

32

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. Ekaina eta uztaila



Hasi da 'Tintokrazia'

Kontzejuaren barrutik atera den txantxa da, *tintokrata* batek sortua, baina historia liburuetan agertu litekeen izendapena izan daiteke: Aizarozko Kontzejuaren lehenengo garaia, *Tintokrazia*. Izan ere, urteetan borrokatu ondoren, lortu dute: jaio da Aizarozko Kontzejua. Hauteskundeak iritsi bitartean, izendatu dira batzorde kudeatzailea osatuko duten kontzeju-kideak, eta abuztuaren 22an deitu zuten lehenengo batzar orokorra. Herritar ugari bildu zen.

Hamarkada bat borrokan eman dute eta azkenean lortu dute, Aizarozko Kontzejuaren sorrera ofiziala da otsailetik. Maria Txibite presidentek urtarrilean sinatu zuen dekretu forala, otsailaren 7an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta, otsailaren 8an sartu zen indarrean. "Orain arazo txiki bat dugu. Urtero ospatu nahi dugun zerbait da eta 7an argitaratu baina hurrengo egunean sartu zenez indarrean, ez dakigu 7an edo 8an ospatu (barreak)!", azaldu digu Eneko lurramendi Aleman 'Tinto' Aizarozko lehenengo alkatea. Basaburuko alkateak, Santos Etxegiak ere pozez hartu zuen berria: "Gainera nire urtebetetzean argitaratu zen, otsailaren 7an, opari ederra izan zen".

Aipatu bezala, lurramendi izanen da Aizarozko lehenengo alkatea: "Gainera, Maria Txibitek izendatu banau mereziko dut, ezta? *Mariatxi Bite!* (barreak)". Askok dakizuen bezala, 'Tinto' Mexikortxo taldearen burua ere bada, Pancho Villaren korridoak kantatzeagatik ezaguna den taldea. Umorea ez da faltako *Tintokrazian*, ez.

Bide luzea eta malkartsua

Uxue Barkosen gobernuan (2015-2019) hasi zen bide malkartsua izan da. Alde agertu zitzaizkien orduan, baina ezer ofizialik sinatzeko astirik ez zuten izan 2019ko hauteskundeak iritsi baino lehen. Orduan, aldaketa etorri zen, eta PSN erabat kontra

agertu zen. lurramendi: "Kontzejuen sorrerak etenda zeuden aspalditik, gaur egun kontzejuen eta administrazio txikiak desagertzea da joera, eta ahal diren handienak sortzea, Gobernuari arinago egiten zaiolako. Udalak ere desagertuko balira, mankomunitateetan bildu eta bikain izanen zen haiendako. Administrazioak zenbat eta potoloagoak izan zerbait aurrezten dutela iruditzen zaie". Basaburuko egungo alkateak ere, Santos Etxegiak, ideia hori bera nabarmendu du: "PSN-ren eta UPNren politika da, udalak handiagoak izatea eta kontzejuak desagertzea. Azkenean, alderdi batek, boto bakoitzeko diru bat jasotzen du eta handiek hirietan babes handiagoa dute herri txikietan baino. Kontzeju





berri bat egitea ez zen aukera bat, PSNren Administrazio berria erabat itxita zegoen”.

Aizarotzen eta Udalean, ordea, kontrako bidea bultzatu nahi dute. Eneko lurramendi, Aizarozko alkatea: “Gu kontrakoa pentsatzen dugu, herritarrengandik ahalik eta hurbilen dagoen instituzio hori, nahiz eta kontzeju txiki bat izan eraginkorragoa, irekiagoa eta demokratikoagoa izanen da”. Hain zuzen ere, hori da Santos Etxegia Basaburuko alkateak ikusten duen arrazoia Gobernuak oztopoak jartzeko: “Nafarroako Gobernuari eske joaten zaizkionak alkateak edo herri txikietako administrazioak dira, “aizu, zin egin zenidan bidea moldatu behar zenutela eta ez zarete ari moldatzen”, eta handik hilabetera, “berriz nator ez dagoelako mugimendurik zentzu honetan...”, eta berriz eta berriz joaten gara. Nahiago dute, erosoagoa da, beste modu batean funtzionatzea”.

Gauzak horrela, bidea guztiz itxi zitzaizela ematen zuen, baina, Parlamentuan EH Bilduren laguntza jaso zuten eta aurrekontuetarako negoziazioetan Aizarozko Kontzejuaren sorreraren promesa lortu zuten. Santos Etxegia: “Hala ere mantso, oso mantso joan zen, Gobernuak ez zuen mugitu nahi. Gu insistitu eta insistitu egin behar izan genuen. Hain zuzen ere, onartu zen azken neurria 2023ko hauteskundeetan atarian izan zen, gu beldurrez ginen, mugan-mugan sartu baitzen”. Behin onartua ere, nahi baino gehiago luzatu zen: “Beste guztia tramitazioa besterik ez zen, baina oso mantso joan zen. Hor ere deitu eta deitu ibili ginen baina beti baziren plazoak eta epeak. Momentuak izan dira uste genuela ez genuela lortuko. baina azkenean lortu dugu. Satisfazio bat izan da. Pastel bat egiten duzunean bezala, puskatzen duzun lehenbiziko bokadua eta esaten duzu “ze goxoa dagoen! Zer kontent!”. Hiru alkatetza eta zinegotzi eta herritar



**Eneko lurramendi “Tinto”,
Aizarozko alkatea:**

**Herritarrengandik
ahalik eta hurbilen
dagoen instituzio
hori eraginkorragoa,
irekiagoa eta
demokratikoagoa
izanen da**



asko izan direla lanean gogoratu nahi izan du.

Hamar kontzeju, denok berdin

Aizarotzekin, Basaburuak hamar kontzeju izatera pasa da, zenbaki borobila. Kontzejuak udalak bezala denon onerako izanen dela uste du. Eneko lurramendi: “Hemen anomalia insituzional bat zegoen eta biztanle gehien dituen herriak kontzejurik ez izateak haserre txiki asko sortzen zituen. Aizarozko batzuek, ziur aski, Udalak ez zuen egiten egin behar zuen guztia, herria txukun mantentzeko. Beste herrietako batzuek, ordea, ari zen Aizarotzen gehiegi gastatzen, beren herrian gastatzen ez zena. Horregatik, Udalak eta gainontzeko herrietako kontzejuek ere argi zuten garbiena hau izanen zela, Basaburuko gainontzeko herriek bezalaxe guk ere kontzeju izatea, eskumen berdinekin, ez gehiago eta ez gutxiago, eta kontuak askoz ere garbiago izanen zirela”. Horregatik, Aizarotzen eskertuak daude oso Udalarekin eta gainontzeko kontzejuekin: “Kontzeju lortzeko azken pausuetan ere kontzeju guztiek idatzi bat sinatu

zuten Nafarroako Gobernuari Aizarozko Kontzeju eskatuz”.

Hala ere, aldaketa guztietan bezala, beti agertzen dira zalantzak dituztenak, Santos Etxegia: “Askok galdetu den gauza bat izan da Aizarotzi zer eman zaion, Udalarenak ziren gauzak eman zaizkiola esaten dutenak agertu dira. Nik argi utzi nahi dut bai Udala baita Aizarozko Kontzeju ere Administrazioa direla. Berdin-berdin zait kultur etxea Udalarena edo Aizarozko Kontzejuarena izatea, biztanleena delako. Denak gara Administrazioa. Hau ez dio Santosek *Tintori* eman, ez, Administrazioetik Administrazio-*ra* egin da eta instalazioak Administrazio-*ren*ak ziren eta segitzen dute Administrazio-*aren*ak izaten. Zer izen duen administrazio horrek? Igual du”.

40 urtetan, lehenengo kontzejuak?

Aizarozko Kontzejuaren sorrerak uste baino garrantzi handiagoa du. Ez bakarrik Nafarroakoan, Euskal Herriko prentsan zabaltzen zen berria izan da. Izan ere, hamarkadetan sortzen den lehenengo kontzeju da, bitartean dozenaka desagertu diren bitartean. Basaburuko alkatea: “Esaten denez 40 urte izan dira kontzeju berri bat sortu ez denetik eta hori ez da horrela, urte gehiago dira. Orain dela 40 urte egin zirenak udal berriak izan zirelako, Lekunberri edo Berriozar, adibidez. Baina kontzeju berriak ez dira egin”. Eta nola ez, hemen ere herrien hustutzea aipatu beharra dago, Eneko lurramendi, Aizarozko alkatea: “Zergatik galdu diren hainbeste kontzeju? Herri asko zahartu direlako, hustu direlako. Jende gutxiago dago herrietan, jende gutxiago muxutruk lan egiteko prest, eta Aizarozko eredu honek horrekin apurtzen du. Nire ustez albisterik hoberena ez da Aizarotzek Kontzeju izatea lortu duela, baizik eta erakutsi dela landa eremuan badela jendea prest herritarren



“

**Santos Etxegia,
Basaburuko alkatea:**

**Pertsona batek uste
badu ekarpena egin
dezakeela, oso erraza
du, bere auzokideari
esan. Hurbiltasun
horrek ez du deus
ikustekorik beste
ezerrekin**

”

alde lan egiteko”. Etxegia Basaburuko alkateak etorkizuna ikusten dio Aizarotzi: “Nik uste dut ongi joanen dela, garbi dut. Iruditzen zait lehenago beste kontzejuren bat geldituko dela alkaterik gabe, Aizarotz baino. Geroz eta zailagoa da kontzejuetan zerrenda ateratzea, baina pentsatzen dut Aizarotz luzerako dela”.

Kontzejuen desagertzearen arriskua Udaleko alkateak berak ere azaldu digu, Santos Etxegia: “Tontakeria dirudi baina gauza oso serio bat da. Azanzako kontzejua desagertu zen lehengo urtean, Goñiko bailaran. Bada, gatazka bat dute errota

batzuekin. Kontzejua egonda hori gertatuko zen? Igual bai, baina beharbada herrikoak hasiko ziren lehenagotik mugitzen eta gauzak beste modu batean egingen ziren. Azkenean, ni, udal bezala, Berueten zer gertatzen den gutxi enteratzen naiz edo Orokietan... herrian egutero dagoenak ikusten du argia ez duela funtzionatzen edo urik ez dela ailegatzen. Kontzejuak guztiz beharrezkoak dira. Pertsona batek uste badu zerbait ez dela ongi egiten, edo ideiarene bat badu edo ekarpena egin nahi badu, oso erraza du, bere auzokideari esan. Hurbiltasun horrek ez du deus ikustekorik beste ezerrekin”.

Tintokratak

“Batzordeak irekiak izanen dira eta bertan erabakitzen dena egingen du kontzejuak, batzordeak erabakiorrak izanen dira beraz”

Mezu hori argi utzi zuen abuztuaren 22ko lehenengo batzorde orokorrean Aizarozko Kontzejuko batzorde kudeatzaile berriak. Beren kideekin egon ginen batzarra aurretik. Urduritasuna nabaria zen giroan, baina ilusioa ere, izugarria.

“Bost gehi bat” izanen dira, ofizialki bost eskatzen baititu legeak. Baina izan behar zirenetako herritar bat atzerriko jatorria izateagatik ezin zenez sartu, ordezkoa bilatu zuten. Azkenean seiak bilduko dira eta arituko dira lanean, hurrengo Udala eta Kontzeju hauteskundeak izan arte, hau da, 2027ko maiatza arte.



Bea Fuertes Oña, diruzaina: “Lanari pixka bat izututa helduko diogu, datorkigunarengatik, baina aldi berean gainontzeko herrien pare sentitzen gara orain, maila berean. Herria herritik hobetzea izanen da”.



Gorka Ramirez Cachafeiro, auzolanak eta azpiegiturak: “Hasieran ez nuen espero hainbeste lanik egongo zenik eta horrek izutzen du pixka bat baina gauzak egiteko aukera asko zabaltzen da”.



Alejandra Andrés, pestak: “Nik uste dut oso interesgarria izan behar duela eta emaitzak izanen direla. Independentetago izanen gara orain eta nik uste dut erronka polita dela”.



Laia Vigué Llop, baratzak: “Oso pozik nago, heldua egitea bezala da, ardua gehiago baina beste gaitasun batekin, beraz, ardua hori hartzeko prest. Kontzejua herriko nahiak betetzera bideratzea da gure asmoa.



Irantzu Perez Ziaurritz, Kultur Etxea: Ostalua hartzen duen pertsonarekin harreman zuzena izango duena izanen naiz eta kultur etxeko ekintzen kudeatzailea. Berritasunen artean, ari gara pentsatzen, gure herriko gazteendako gela bat antolatu eta txukuntzea”.



Lore bakar baten istorioa, Etsaindik

Ingurumen tartea egiten digu Esan Erran irratian losu Alfaro biologo etsaindarrak, eta ekaineko azken kolaboraziora istorio polit bat ekarri zigun: orkidea oso berezi bat topatu du Etsain inguruan, Nafarroan lehenagotik ikusi ez den lore mota bat. Horregatik, honela izendatu zuen etsaindarrak kolaborazio hau: 'Lore bakar baten istorioa'

"Mendian nengoen, Etsain inguruan, eta pinudi batean sartu nintzen, ea zer topatuko. Eta orkidea bat ikusi nuen", hasi zuen kontakizuna Alfarak. Izan ere, jakina da gure inguru hauetan orkidea baskari mota asko ditugula, lehenago ere ekarri izan ditugu Pulunpeko ingurumen atalera. Baina, mila metroko garaierako inguruan, atentzioa eman zion etsaindarrari orkidea hark, eta galdetzen hasi zenean, orkideazaleen harridurarekin egin zuen topo: "Baina, non zaude? Espezie hori ez da lehenago inoiz ikusi Nafarroan, sekula ez da erregistratu!", esan zioten.


Neotinea conica orkidea

Espezie horretako orkidea da etsaindarrak topatu zuena, eta inguruan ea horrelako gehiagorik topatzen zuen begiratu zuen, baina bakar-bakarrik zegoen lorea. "Basozainak etorri ziren fitxa bat egitera, eta kanpoko botanikari batzuk ere hemen izan dira, orkideen afizionatuak", azaldu du Alfarak. Dirudenez, guregandik gertuen, Katalunian eta Valentzia aldean dago erregistratua orkidea mota hau. Baina, orduan, nola iritsi da honaino?

Informazioa biltzen aritu da Alfaro, eta hona hemen jasotakoa: "Orkideek lortu dute landareen artean hazirik txikiak egitea, hazi mikroskopikoak egiten dituzte, eta hauek dispersatzeko haizea erabiltzen dute", azaldu du. Zein da orkidea mota honen

eta beste batzuen berezitasuna? Landare eta lore gehienak autotrofoak diren bitartean, alegia, haziak pizteko behar duen energia bere barruan daramatenean, kasu honetan, heterotrofoa da.

"Landare autotrofoen kasuan, no-



▲ Neotinea conica kokapenak



▲ Neotinea conica orkidea

labait, haziak gasolina deposito moduko bat daramate barruan, horrek astunago egiten ditu, baina hazi horrek bakarrik, bere kabuz, lurrarekin eta hezetasun egokiarekin pizteko gaitasuna du", dio. Heterotrofoen kasuan, berriz, eta hori da *Neotinea conica* orkidearen kasua, hazi batek pizteko behar duen energiari ez du bere baitan. "Zeinek ematen dio energia hori? Bada, orkidea hauek onddo genero zehatz batekin sinbiosi erlazio estua dute: onddoak hazi inguratzen eta biltzen du, bere ehunen barruan sartzen du eta elikatzen hasten da", dio. Gerora, landarea garatzean azukreak ekoizten ditu, eta hori onddoari interesatzen zaio. "Hori da, nolabait, loreak onddoari trukean ematen diona", dio. Eta, sinbiosi harreman horri esker sortzen da lorea hazitik, bestela ezingo luke.

Katalunian, Valentzian, Andaluzian, Extremaduran... eta Etsainen!

Misterioa da orkidea berezi honen hazi nondik eta nola iritsi ote den guregainaino. "Ez dakigu zein distantzia egin duen, non dagoen bere jaioterria... dakiguna da, hazi mikroskopiko hauek bi urtez bizirik irauteko gaitasuna dutela, hortxe, lurtean geldirik, erretu arte. Aurten Etsainen lore bakar bat dago, eta galdera da, datorren urtean loratuko al da? Utziko al du beste haziren bat inguruan? Edo orein bat iritsi eta jan egingen du? Auskalo!", amaitu du.

Uztaileko kalderete eguna ospatu ondoren, abuztuan Gipuzkoako kostaldera

Urtero ospatzen du Denok bat jubilatuen elkarteak kalderete eguna. Aurten Lizason egin zuten. Abuztuan Zumaia, Getaria eta Zarautz bisitatu zuten.

Urteroko lege, kalderete eguna ospatu genuen, aurten Lizasoko trinketean. Uztailaren 17an bildu ginen, goizeko 10:00etan, mahiak eta janariak prestatzen hasteko 14:00etarako elkartu behar baiginen bazkarirako.

Egun beroa izan genuen eta nahiz barnean izan, nabaritzen zen kanpoko bero sapa.

Ederki bazkaldu ondoren, kanta batzuk izan ziren eta baita mus partidak ere. Giro polita, elkarrekin egotean sortzen denaz gozatuz pasa genuen arratsaldea eta datorren urtean errepikatzeko asmoarekin itzuli ginen etxera ilunabarrerako.



Prestaketa lanetan

Abuztuko txangoan Zumaia, Getaria eta Zarautz bisitatu genituen. Zumaian, aurretik hitzartuak genituen bi barkutan, Flyschak ikustera joan ginen. Baina zer da Flisch bat? Geru-



Barkuetako bat, Denok Bateko kideez bete

za gogorrez eta bigunez, txandakatu, osatutako eraketa geologikoak dira, itsas zolan sedimentatuz eta metatuz joan direnak. Ondoren, 20 milioi urtez gutxi gorabehera, lurra- ren barneko indarrak horma bertikal ikusgarri horiek altxatu ditu.

Gidek irakatsi ziguten, batean erdaraz eta bestean euskaraz, flyschen garrantzia. Liburu baten antzera geruza bakoitza orri bat izanen litzatekeela azaldu ziguten eta horrela, orriek azkeneko 50 milioi urteko

lurra- ren historia gordetzen duen liburua osatuko luketela.

Bestetik, Zumaia- tik Mutrikurainoko kosta bazterra eraikin gabekoa zergatik den irakatsi ziguten.

Orain dela urte batzuk, 70eko hamarkadan, proiektu nuklear handi bat jarri zen martxan, eta Euskal Kostaldean banatutako 3 zentral nuklear jarri nahi izan ziren: Lemoiz, Ispazter eta Deba. Baina Lemoizkoa bakarrik eraiki zen eta ez zuten inoiz martxan jarri. Bada, flyscheko labar



Denok Batek bete zuen jangela



eder horien gainean, eraiki nahi izan zuten zentral nuklear horietako bat. Gaur egun, lurrak Gipuzkoako Foru Aldundiarenak dira. Arrazoi hori eman zigun gidak, egoera azaltzeko.

Itsasoa nahiko bare zegoen baina langarra antzekoa izan genuen bisita ia osoan, gure bistak galeraziz. Barkua utzi eta autobusak hartu genituen Zautzera joateko.

Batzuek Flyscha ikusten genuen bitartean, beste batzuek Getariako

karriketan barna ibili ziren hango edertasunaz gozatzen eta baita pintxoak probatzen ere.

Eguerdirako denok Zautzen bildu ginen bazkaltzeko, *Lagunak* erretegia.

Bazkal ondoren, Zarauzko herria ikusteko aukera izan genuen nahiz eguraldiak ez zigun asko lagundu. Batzuek ez zuten bere mus partida ahaztu, besta batzuek hondartzako kafetegiak bisitatu zituzten, beste batzuek dendak ikusten eta ordua

iritsi zenean denak autobusak hartu eta etxerantz abiatu ginen, eguraldiari "buelta" eman geniolako sentsazioarekin, beste egun bikain bat elkarrekin pasatu ondoren.

Datorren hilabetea, ikasturtea hasiko denez, urteroko ekintzetarako izena emateko epeak irekita daude: dagoeneko Yoga, Gimnasia eta Mus txapelketarako. Baliteke beste batzuk ere antolatzea.

Paseoei dagokionez, irailekoa Euskal Herriko erdigunera izanen da eta urrikoa Txarita mendia igotzea. Iraileko txangoan Urdazubi ikustera joanen gara. Hurrengo alean izanen duzue hauen berri. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Eguraldi kaskarrak ez zioten kafetxoa galerazi!! ▲



Denok Bat
Jubilatu Elkarte

Pulunpeko zozketan musutruk parte hartzen duten ostatuetako batzuk



Eskualdeko hainbat ostatuk saria eskaintzen dute, doan, Pulunpeko Zozketa Mundialean. Gure hedabideendako izugarrizko laguntza da hori.



Berueteko Ostata
San Juan bautista 66
31866 Beruete
Navarra
948 50 30 12



Minda isurketak salatu dituzte berriz Oskotz inguruko herritarrek

Iritsi zaizkigun azken salaketa eta argazkiak abuztuaren 25ekoak izan dira. Ez da ezta hilabete oso bat pasa aurreko salaketatik. Izan ere, Nafarroako egunkari batean argitaratutako [iritzi artikuluan](#) uztailaren 31n gertatu zen isurketa salatu zuten, guztiz nazkatuta, hainbat herritarrek.

Zirudienez, ur-hargune batean egondako haustura baten ondorioz gertatu da isurketa, baina gutunean salatu zutenez, modu askotan gertatu dira isurketak azken hilabeteotan, euria egin eta minda-baltsak gainezka egin duenean edo gehiegizko minda kantitateak inguruko zelaietan isuritakoan, esaterako.

"Kasualitatea, isurketa justu abuztuko oporren aurrean gertatu izana. Eta, salatu arren, guztia ezerezean gelditzen da", adierazi zuten gutunean.

Urteak daramatzate Imozko herritarrek Oskotzko San Miguel de Aralar kooperatibaren minda isurketak salatzen, [251. Pulunpe aldizkari](#)ko [erreportaje](#)an kontatu genuenez, eta haien haserrea geroz eta nabarmenagoa da.





Herritar ugari salatatu zuen eraso matxista bat Basaburuan

Emakume batek Basaburuan erasotua izan zela salatatu zuen abuztuaren 15ean. Mugimendu Feministak deituta eta Basaburuko Udalak eta Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak babestua, elkarretaratzea deitu zuten larunbat horretan, abuztuaren 16an. Eskualdeko herritar ugari hurbildu ziren Jauntsaratsera, eraso eta indarkeria matxista oro gaitzesteko. Eraso sexisten aurrean autodefentsa feminista babesten zuen mezua nabarmendu zuten.

Basaburuko Udalak eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, gainera, elkarretaratzera deitzeko oharra zabaldu zuten. Bertan, indarkeria matxistak "egiturazko izaera duela eta erasoak gizon eta emakumeen arteko botere harremanekin lotura duela" agerian utzi nahi izan dute.

Instituzio publiko bezala indarkeria matxistaren aurrean jarrera konprometitua izan behar dutela ere adierazi dute.



Odietak bere energia komunitatea sortzeko bideari ekin dio

Odietan, udalerriarekin konprometitua dagoen herritar talde batek urrats garrantzitsu bat ematea erabaki du, bere energia komunitatea sortuko du! Kontua ez da eguzki plakak instalatzea edo fakturan gutxiago ordaintzea soilik, zerbait handiagoa baizik. Indarrak batzea, energia garbia partekatzea, guztion artean etorkizun justuagoa, iraunkorragoa, jasangarriagoa eraikitzea eta proiektu komun baten kide izatearen sentimendua sortzea da helburua.

Bide honi ekiteko, sei saioko prozesu partehartzaile bat prestatu dugu, horietan parte hartu nahi duen Odietako edozein pertsonari irekia. Saior horiek bidaia kolektibo baten parte dira, eta elkarrekin, gure energia komunitatea nolakoa izatea nahi dugun ikasten, erabakitzen eta amesten joango gara. Prozesuari irailaren 30ean emanen diogu hasiera Odietako Udaletxean 18:00etatik 20:00etara, eta egun horretatik aurrera, hamabostean behin eta ordu berean, Odietako Udaletxean izanen dugu hitzordua.

Saioren edukia ondokoa izango da:

1. SAIOA (irailaren 30ean): Nola iritsi gara hona? Bizipenak eta motibazioak partekatuko ditugu, nor garen eta nahi dugun komunitate hori nola irudikatu dezakegun ikasiko dugu.

2. SAIOA (urriaren 14an): Figura juridikoak eta gobernantza-ereduak. Antolatze modu desberdinak aztertuko ditugu eta erabakiak modu demokratikoan nola hartu eztabaidatuko dugu.

3. SAIOA (urriaren 28an): Teknologia eta lehen proiektuak. Energia berriztagarrien aukerak ezagutuko ditugu eta Odietaren mapa energetikoa sortuko dugu, zein proiektu diren bideragarrienak ikusteko.

4. SAIOA (azaroaren 11n): Eredu ekonomikoa. Gure energia komunitatea nola finantzatu eta kudeatu daitekeen aztertu eta eztabaidatuko dugu.

5. SAIOA (azaroaren 25ean): Komunikazioa eta identitatea. Ekimena nola ezagutarazi, zer mezu helarazi nahi ditugun eta bazkide gehiago nola erakarri aztertuko dugu. Azken batean, nola sortu gure identitatea energia komunitate gisa.

6. SAIOA (abenduaren 9an): Formalizazioa eta hurrengo urratsak. Prozesua ixteko, akordioak jasoko ditugu eta gure energia komunitatea ofizialki eratzera eramango gaituen ibilbide orria marraztuko dugu.

Prozesu hau herritik sortu da, ilusioz eta konpromisoz. Odietan badakigu etorkizuna eraikitzen elkarrekin egiten baldin baidugu. Ekimen hau bultzatzen duen energia ez da berriztagarria soilik: komunitatearena, herriarena, zurea da.

Informazio gehiago: odietakkee@gmail.com.



Odietako Energia Komunitatea



Beñat Senosiain olaguearra, aizkorako hirugarren mailako Nafarroako txpelduna

Hirugarren mailako txapela irabazi du 16 urteko gazteak eta, horrela, bigarren mailara igo da. Hurrengo erronka, urriaren 26an du, Balmasedan.

Nafarroako hirugarren mailako finala izan zen Arantzan, joan zen abuztuaren 15ean, eta Olagueko Beñat Senosiain aizkolari gazteak eraman zuen txapela. San Ferminetako kanporaketan erabaki bezala, Senosiainekin batera lau aizkolari gehiago aritu ziren, eta bi kanaerdiko eta bi 45 ontzako moztu behar izan zituzten. Olaguearrak 11'07ko marka egin zuen Julen Urrutia arraioztarra bigarren postuan utziz. Biak pasa dira bigarren mailara.


Sailkapena:

1. Beñat Senosiain (Olague): 11.07
2. Julen Urrutia (Arraioz): 11.21
3. Ioan Goikoetxea (Etxarri Arantatz): 15.00
4. Eñaut Oiarbide (Etxarri Arantatz): 15.09
5. Xabier Mitxelena (Irurita): 15.15

Beñat Senosiainek azaldu digun bezala, lehenengo bi sailkatuen artean egotea zen helburua, bigarren mailara igozko. Azkenean, txapela lortzeko lehian ere sartu eta irabazi zuen: "Hasieratik oso ongi ikusi nuen neure burua eta aitak oso ongi nenbilela erraten zidan, lehenengo eta bigarren postuan borrokan. Behin garaipena eskuratu nuela oso pozik hartu nuen". Aitor Senosiainek aizkolari oiha du aita, txiki txikitatik aizkora erakutsi eta lagundu dio. "Beti aritzen naiz etxean entrenatzen baina ez dakizu plazan nola ibiliko zaren. Honek erakusten dit etxeko entrenamenduetan ongi ari garela eta plazan nire maila emateko gai izan naizela. Hori da egin beharrekoa, etxean erakusten duzun maila plazan ere erakustea", azaldu digu gazteak.

Nafarroako III. mailako txpelduna dugu, beraz. Joan zen urtezahar egunean, Asteasun, Urrezko Aizkoraren aurretik jokaturako binakako gazteen txapelketan ere garaipena lortu zuen Igoin Pikabearekin batera. Hurrengo erronka urriaren 26an izanen du, Balmasedan, Euskal Herriko gazteen txapelketa, eta horretarako prestatzen arituko da hemendik aurrera. Tartean, esan digunez, erakustaldiak ere eskaintzeko aukera izatea espero du: "Horiek ere asko laguntzen bainaute jendearen aurrean aritzen zarenean agertzen den urduritasun hori kudeatzen".

Aitak bost urterekin oparitu zion bere lehenengo aizkora Beñat Senosiain Bikuña olaguearrari. Duela hiru urte debutatu zuen, Anueko eguneko erakustaldian, etxean.





Ultzamaldea Nafarroako Txapelduna lehenengo konbinatuan, herriz herrikoan

Ultzamaldeko Herri Kirol taldea Nafarroako txapelduna izan zen Herriz Herrikoan, lehenengo proba konbinatuan. Burlatan jokatu zen abuztuaren 17an.

Proba lau ariketek osatzen zuten: lokotxak, zakua, aizkora, korrika eta trontza; eta, 20'59"12ko denborarekin, azkarrenak izan ziren Ultzamaldekoak. Horrela, txapel-dunak izan dira lehenengo konbinatuan Burlatan amaitu zen Herriz Herriko finalean. Arraioz (21'26"07), Berriozar (22'34"88) eta Basaburua (Baztangoa) (24'00"06) utzi zituzten atzean sailkapenean.

Ultzamaldeko taldea, gainera, bigarren konbinatuaren finalean ere lehiatu zen, baina hirugarren postua lortu zuen. Taldekideek pozik azaldu zaizkigu egindako lanarekin, hala ere. Etxarri Aranatz izan zen irabazlea; bigarrena, Txantrea; eta, laugarrena eta azkena, Arraioz.

Maika Iraizoz, errekorreko emakumea

Ultzamarrak bigarren konbinatuan parte hartu zuen eta errekorreko denbora egin zuen ingudean. 64 kolpe eman zituen 60 segundotan eta herriz herriko urteetako emakumeen errekor absolutua egin zuen. Maika Iraizoz: "Bai, Federazioak horrela aitortu zidan. Herriz herrikoa egiteko eredua aldatu zen eta uste dut aldatu zenetik errekor absolutua izan dela emakumeetan. Larraintzar-ko finalean txingak egin behar nituen, baina ingudea egin behar zuen kidea ezin izan zen etorri eta, orduan, nik egin nuen". Ez zen erabaki txarra izan, hain zuzen ere, San Ferminetako txapelketan bigarrena izan zen 90 segundotan 86 kolpe emanda, eta herriz herrikoan,

Larraintzarren, lehenengo errekorra egin zuen: "Larraintzarren finalaren kolpe kopuru berbera egin nuen, baina esan nuen, tira, ziur aski etxean jasotako animoengatik izanen da. Baina, ez, Burlatan marka errepikatu nuen. Ez nuen espero kolpe kopuru hori egitea, eta ez nekien errekorra zenik ere, beraz, oso-oso pozik".

Txapelketa uztailaren 19an hasi zen, Beran. Hurrengo norgehiagokak Elizondon eta Antsoainen izan ziren uztailaren 25ean eta abuztuaren 2an. Ondoren, azkenaurrekoa, gure eskualdean, Larraintzarren, izan zen, hain zuzen ere finalerako txartelak banatu zituen saioa eta Ultzama Frontoia bete zen.





Ibaitik Itsasora Palestinaren aldeko ibilaldia eskualdetik pasako da

Ibaitik Itsasora Palestina askatzeko aldarriaren sinbolo gisa, Ebro ibaitik Kantauri Itsasoraino, Hendaian bukatuko baita, martxa antolatu dute irailaren 10etik 20ra. Seigarren etapa Larraintzarren bukatuko da irailaren 15ean; eta zazpigarrena Larraintzartik Doneztebera izanen da, irailaren 16an. Hemengo etapa eta jarduerak prestatzeko tokiko batzorde bat sortu da.

Etapako bakoitzeko tokiko batzorde bat sortu da, baita Ultzaman ere, eta etaparen nondik norakoak prestatzen laguntzeaz gain, Palestinaren egoera salatzen aritu dira abuztuan. *Ibaitik Itsasora - Palestinaren Aldeko Ibilaldia* ekimena azaltzeko prentsa agerraldia egin zuten Iruñean eta bertan izan ziren Ultzamaldeko ordezkariak ere.

Martxa Tuteratik Hendaia izanen da irailaren 10etik 20ra bitartean; eta, gure eskualdetik ere pasako da; izan ere, seigarren etapa Berriogotitik Larraintzarrera egingen dute, irailaren 15ean. 19 kilometro dira eta bost orduko ibilaldia. Hurrengo egunean, Larraintzartik Doneztebera izanen da, ibilaldiaren mendiko etapa bakarrean; horregatik, etapa horri ekiteko, antolatzaileek Nafarroako Mendi Federazioaren laguntzarekin, autobusak jarriko dituzte Eltzaburura. Zazpigarren etapa hori 26,9 kilometro ditu eta sei ordutan egitea aurreikusten dute.

Palestinaren aldeko sarea

Baina ibilaldiak osotara hamaika etapa ditu, esan bezala, irailaren 10ean hasiko baita Tuteran eta 20an Hendaian bukatu. Prentsaurrekoan azaldu zuten, "Ebro ibaitik Tuteran Hendaia-erainoko ibilaldia Euskal Herria eta Palestinaren ar-

teko elkartasunaren adierazgarri da. Palestinako lurralde historikoan, ibaitik itsasoraino, askatasunez, berdintasunez eta justiziaz gozatzeko duen bidezko nahia aldarrikatzen du". Prentsaurrekoan izan ziren ekimena antolatzen lagunduko duten hainbat ultzamar eta baita Ultzamako Udaleko hainbat ordezkari.

Ekimenak bi helburu ditu. Alde batetik, EHko lurralde osoko herrietan kausa palestinarrari laguntzeko sarea ikusaraztea eta aktibatzea; horretarako, tokiko batzorde bakoitzak herritarren parte-hartzea sustatu du, eta Palestinako kausarekin

elkartasuna adierazteko jarduerak soziokulturalak antolatuko ditu bere zonaldean; bigarren helburua, okupazioarekin eta genozidio sionistarekin kolaboratzen duten EHko enpresak eta erakundeak salatzea.

Genozidioarekin konplize

Prentsa agerraldian Nafarroan ari ziren diren enpresa eta erakunde batzuk aipatu zituzten, Israelgo estatu genozidarekin lotura ekonomikoak dituztenak. Ibilbideak horietako batzuen ondoan pasako da, hain zuzen ere.





Bardeako gune militarrean Israelgo armadarekin elkarlanean dihardute NATOk aireko indarrek; CAFek, Beasainen edo Irunen bezala, Castejonek eta Artikan lantegiak eta bulegoak ditu; MTorres fabrika ere aipatuko dute, Israelgo armadari teknologia saltzen dion enpresa; Baita Osasunbidearen egoitza ere, Nafarroako erakunde publikoak TEVA enpresa israeldarrari sendagaiak erosten baitizkio; Zara, lurralde okupatuetan inbertitzen eta sionismoarekin kolaboratzen duen multinazional espainiarra; eta Carrefour, Frantziako multinazionala, legez kanpoko kolonietan negozioak egiten dituen eta Gazan genozidioa aurrera eramaten ari diren soldaduei janaria oparitzen diena.

Larraintzarko etapa

Eta osorik egin nahi dutenak Berriogoitin bilduko dira 8:45ean, irailaren 15ean. Hain zuzen ere, Berrioplano eta Berriogoitirek arteko biribilgunean elkartuko dira. Han, martxari ekiteko, Mintxo txistulariak girotuko du irteera.

Lehenengo geldialdia Ataburuko goikaldean egingen dute, atsedean pixka bat hartzeko. Han ere musika izanen dute. Ondoren, hurrengo atsedena Gelbentzuko bentan izanen da eta han ikuskizuna izanen

Irailaren 15ean, etapa
amaituta, bazkaria
Larraintzarko Ostatuan.
Txartelak salgai irailaren
10a bitartean

dute parte-hartzaileek, Pettiren eta abesbatzaren laguntza izanen dute horretarako. Gelbentzutik Orgi basoan barna abiatu eta Lizasoko pistatik iritsiko dira Laraintzarrera. Trikitilariak eta txalaparta doinuek hartuko dituzte. Bazkaria Larraintzarko Ostatuan izanen da eta txartelak erosteko epea irailaren 10a bitartean duzue. Eta, amaitzeko, arratsaldean hainbat ekimen izanen dira helduendako eta gaztetxoendako: Dabke tailerra (Palestinako dantza tradizionala), bertsolariak, Palestinako poesia irakurketa. Jardunaldiaren amaieran musika gehiago ere izanen dute Mexikortxoaren eskutik, besteak beste. Hala ere, Pulunpe honen itxieran ari dira dena lotzen eta aipatutako egitarauan alaketak egon daitezke.



Ibilaldia

1. Tutera- Castejon. Irailaren 10ean, asteazkena. Tuteratik atera, Ebro ibaitik eta Salaketa egingen da Trenasa Castejonek. 16 km, 4 ordu.
2. Castejon- Azkoien. Irailaren 11n, osteguna. 22km, 5 ordu.
3. Azkoien- Tafalla. Irailaren 12an, ostirala. 26km, 6 ordu.
4. Tafalla- Soltxaga (Baldorba). Irailaren 13an, larunbata. 14km, 4 ordu.
5. M.Torres (Elorz)- Noain- Iruñea- Antsoain. Irailaren 14a, igandea. 20km, 4 ordu. Manifestazio handia Iruñeko kaleetan zehar. Bazkaria eta egitaraua Antsoainen.
6. Berriogoiti- Larraintzar. Irailaren 15a, astelehena. 19km, 5 ordu.
7. Larraintzar- Doneztebe. Irailaren 16a, asteartea. Mendi martxa. 26,9km, 6 ordu.
8. Doneztebe- Elizondo. Irailaren 17a, asteazkena. 14km, 3 ordu.
9. Elizondo- Bera. Irailaren 18a, osteguna.
10. Bera- Irun. Irailaren 19a, ostirala. 20km, 4 ordu.
11. Irun- Hendaia. Irailaren 20a, larunbata. 5km, 2 ordu. Itsasora iristeko, azken manifestazioa.



Denda berria eta ostatua, Iraizozko poligonoan

Supermerkatu berria ireki zuten maiatzean Jose Miguel Gastearena Mutuberria eta Rosa Orquin Balda alkoztarrek. Iraizozko poligonoan dago denda, eta erosketak egiteko ez ezik, herritarren elkargunerako toki izatea ere nahi dute. Aukera hori ematen du uztailean denda ondoan ireki duten ostatuak eta jatetxeak.

Lizasoko dendak itxi zuenetik, erosketak egiteko tokirik gabe zegoen Ultzama, eta hutsune horri erantzuteko asmoz erabaki zuten Gastearenak eta Orquinek supermerkatua irekitzea. "Urteak dira denda bat irekitzeko ideia buruan bueltaka genuenetik, baina Lizasoko denda egoteak frenatu egiten zigun", adierazi du Gastearenak. Kamioilaria da bera, eta aurretik ez zuen inoiz esperientziarik izan merkataritzan

edo ostalaritzan. Orquinek bai, ordea. "Nire gurasoek Alkotzen ostatua zuten eta han aritu izan nintzen lanean, eta gerora beste ostatu batzuetan ere aritu izan naiz", dio. Duela zenbait urte supermerkatu batean ere aritu zen lanean, baina denbora tarte oso motz batez. "Azken 28 urteak Maier enpresan eman ditut, orain eszedentzia bat hartu dut", gehitu du. Gastearenak kamioilari lanetan segituko du; uda-

ko oporrak aprobetxatu ditu dendako eta ostatuko lanak aurreratzeko.

Bailarari bizitza emateko

Lizasoko denda itxi zenean hutsune handia gelditu zen bailaran, eta herritarren artean eta udalean bazegoen kezka. "Iraizozko poligonoan zerbitzu anitzetarako lursaila genuen guk, eta batek baino gehiagok esan zigun, hauxe zela momentu



Rosa Orquin eta Jose Miguel Gastearena dira supermerkatuko kudeatzaileak ▲



egokia denda bat irekitzekoa, bailaran falta zela eta", gogoratzen dute. Bikoteak ere, ordura arte, Lizasoko dendan egiten zituen erosketak, eta falta handia sumatzen zuten itxi zutenetik. "Nik hemen egiten nuen lan eta erosketak ere hemen egin nahi nituen, Iruñera joan beharrik izan gabe. Lizasoko denda itxi zutenean galduta ikusten nintzen, eta pentsatzen nuen, niri hau gertatzen bazait, beste jendeari ere gauza bera gertatuko zaio...", adierazi du Orquinek.

Iraizozko poligonoari ere denda batek eta ostatuak bizitza ekarriko ziola pentsatu zuen Gastearrenak. "Hau guztia nahiko hilda zegoen, ez zegoen ezer poligonoetan, eta bizitza pixka bat ekar zekiokela konbentzituta geunden", dio. Horrela, bada, aurrera egitea erabaki eta poligonoko dendaren obrak hasi zituzten. Maiatzaren bueltan zabaldu zituen ateak supermerkatu berriak, eta hasieratik erantzun oso ona izaten ari direla diote bultzatzaileek. "Jendea oso eskertua azaldu da hasieratik. Azkenean, zerbitzu bat eskaintzen da hemen, baina elkartzeko toki bat ere bada. Ireki genuenean, polita zen dendan jende taldeak elkarrekin berriketan ikustea. Agian kanpoan aspaldian ez

“ **Jendea
erosketak
egiteko toki bat
eskaintzeagatik
oso eskertua
azaldu da
hasieratik** ”

Supermerkatuaren ordutegia

Astelehenetik larunbatera,
goizeko 9:00etatik iluntzeko
20:00ak arte.

Igandeetan, goizeko 9:00etatik
eguerdiko 14:00etara.

Ostatuaren ordutegia

Astelehenetik larunbatera,
goizeko 8:30etik gaueko
23:00ak inguru arte.

Igandeetan itxita.

zuten topo egiten, eta hemen elkartu dira. Asko esaten zuten, "ederra litzateke orain elkarrekin zerbait hartzeko aukera izatea..."

Ultzamatik ez ezik, inguruko beste bailaretatik ere jendea hurbiltzen dela diote. "Bailararen beste aldetik, Oronoz-Mugairi ingurutik ere etorri da jendea erosketak egitera", diote. Eta, denda poligonoetan egonik, kamioilariak eta poligonoko langileek ere aprobetxatzen omen dute haien erosketak egiteko. "Eguerdietan ez dugu denda isten, eta askotan, lanetik ateratzerakoan egiten dituzte erosketak inguruko langileek. Oso eskertuak azaldu dira, eroso zaielako lanetik atera eta segidan erosketak egitea, etxera joan baino lehen", diote.

Dendan eta ostatuan, guztira, 12 bat lagun ari dira momentu honetan lanean. "Bailarako jendea da gehiena, hori ere garrantzitsua zen guretzat".

Goikan ostatua eta jatetxea

Denda herritarren topaleku ere badenez, ondoan ostatua eta jatetxea irekitzea izan da hurrengo pausoa. Denda ireki eta hilabete gutxira, uda partean zabaldu dute Goikan izeneko ostatua eta jatetxea. "Ireki berri dugu eta oraindik egokitzen ari gara, baina jangela handi bat dugu eta bazkariak eta afariak ematen ari gara", azaldu dute. Eguneako menua ematen dute, baina baita ogitartekoak, plater konbinatuak, hanburbesak, pizzak...

Poligono inguruko langileentzat ere zerbait hartzeko aukera ona dela dio Gastearrenak, lanera sartu aurretik edo lantegitik ateratzerakoan.



▲ Eskaintza zabala dago Iraizozko denda berrian, eta aparkalekua atarian



Kontzertu inprobisatua
Erason, Imozko egunean



Udako zinema



Kantu klaseko ikasleen
emanaldia Imozko egunean



Udako arratsaldeak Gartzaronen



Imozko eguneko bazkaria Erason



Gartzarongo pestetan errondan



Orein Mondragon eta Maika Iraizoz Olaia alabarekin, Nafarroako txinga txapelketan, biak bigarren postuan gelditu ziren



Ultzamaldekoko herri kirol taldea Larraintzarko bestetan



Gariren kontzertua, Jauntsaratsen



Euskararen kontrako azken epaiaren aurkako protesta, Basaburuko udaletxean



Leazkueko bestak



Kuadrilen eguneko irabazlea, Xulategi, Izarpe kanpinean ospatzen



Mexikortxo Band Imozko egunean, Zapa dute mikroan lagun



“80. hamarkadan hasi ziren bailarako eguna antolatzen, eta horretan segitzen dugu”

Abuztuaren 1ean eta 2an Anueko Ibarreko Eguna ospatu zuten Aritzun, eta aurtengoan antolakuntza lanetan aritu den Amaia Iraizoz Cia herritarrek eman dizkigu bestaren inguruko xehetasunak. ‘Batasunaren Eguna’ izenarekin hasi ziren Anueko Eguna ospatzen 80. hamarkadan, eta geroztik bestaren izena aldatu bada ere, izanak berdintsu segitzen du gaur egun.

Aspalditik dator Anueko Egunaren historia, ezta?

Bai, Anueko ibarraren bestaren jatorria 80. hamarkadan dago. Garai hartan ‘Batasunaren Eguna’ deitzen zen, eta ideia zen bailarako herritarrek besta giroan elkartzea. Hala izan zen urte askoan, eta hala izaten segitzen du gaur egun ere. 2010. hamarkada hasieran izena aldatu zitzaion bestari, Anue Bailararen Eguna izatera pasatu zen, eta ordu arte beti Olaguen egiten bazuten, orduan urtero herri desberdinetara mugitzen hasi ziren. Lehenbiziko urtean Etulainen egin zen, gero Burutainen, ondoren Aritzun... zazpi herrietan ospatu izan da, txandakatzuz.

Herri batetik bestera mugitze horrek jende gehiagoren parte-hartzea ekarri al du?

Bai, tira, nabaritzen da urte bakoitzean tokatzen den herriko jende gehiago animatzen dela parte hartzera, eta agian hurrengo urtean beste herri batean denean ez dira joaten batzuk. Baina, behintzat norbere herrian tokatzen denean, bertako jende gehiago animatzen da urte horretan. Azkenean, herriz herri mugituz zabaldu egiten da ekimena, nolabait.

Nola izaten da besta egunaren antolakuntza?

Udaletxetik bultzatzen da ekimena, eta urte bakoitzean tokatzen den herriko Kontzejuaren laguntzarekin, bien artean antolatzen da guztia.

Abuztuaren 1ean eta 2an ospatu duzue aurtien bailarako eguna, zer moduz joan zen?

Oso egun polita atera zen eta erantzunarekin oso kontent gaude. Aritzun ospatu da aurtien, hirugarren aldiz. Ostiralean antzerki batekin hasi ginen, txistorrada izan genuen ondoren herriko plazan, eta mus txapelketarekin amaitu genuen. Izan ere, herri arteko mus txapelketa egiten dugu urtero, herri ba-





“ Aritzun ospatu den hirugarren Anueko Eguna izan da aurtengoa ”

koitzeko bestetan ateratzen diren bikote txapeldunekin torneo txiki bat, bailarako ordezkarien artean. Aurten Egozkuek irabazi du, eta Etsain gelditu zen bigarren. Larunbatean, berriz, goizeko 10:30ean hasi zen besta artisau azokarekin. Ondoren meza, luntxa, eta Noaingo erraldoien konpartsa izan genituen, eta 12:30ean aizkora erakustaldia. Eguerdian, 190 bat lagun elkartu ginen bazkarian, eta arratsaldean Iñaki Vizcay-rekin bazkalondoa, puzgarriak, Destino Sonora maria-

txiak, bokatak, DJa... denetik izan genuen!

Garraio publiko zerbitzua ere jarri zenuten, ezta?

Bai, aurten ere, iaz bezala, autobus zerbitzua jarri genuen herriz herri. Goizeko 10:00etan eta eguerdikoa 13:00etan bailarako herri guztietatik pasatu zen eta Aritzura joateko aukera zegoen, eta gero, bueltarako, 14:00etan, 22:30ean eta 3:00etan zeuden autobusak. Gazteengan eta adineko jendearengan pentsatuta jarri zen zerbitzua bereziki, izan ere, herri txikietan gidatzen ez baduzu askotan mugatua zaude, agian parte hartu nahi duzu baina ez duzu nola joan.

Hurrengo urteko data eta tokia badakizkizue?

Bai, zehaztuta dago honezkero. Herrien zerrenda bat Egina dago eta txandakatuz goaz, hurrengo urtean

“ Uste dut Anuen ongi eusten diogula bailarako biziari ”

Etsaini tokatuko zaio. Eta, data-ri dagokionez, urtero, printzipioz, abuztuko lehendabiziko asteburuan jartzen dugu.

Biztanle gutxiko bailara da zuena, Iruñetik gertu dagoena... osasuntsu al dago bailarako biziari?

Bai, bai, ez dut aldaketa nabarmenik ikusi azken urteetan, oraingo gazteek ere Anuen harremantzen segitzen dute, ez dut Iruñarekiko lotura handiagorik sumatzen, eta eusten diote bailarako biziari.

Zorionak
Zorionak!

Ainitzte Alduncin
Oyarzun. Abuztuaren 22an
4 urte, zorionak!



Nile Ostingeh bi urte bete zituen abuztuaren 2an.
Zorionak!

Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Erripako Etxeberriko

hiru ahizpa Oskozko mutilekin ezkondu ziren

Zorritxarrak ere ez ziren falta izan

Erripa-Oskotz

Don Vicente Azpirotz Urritza, Oskotzen egon zen apez urte luzez, 1803tik hasi eta 1836ko ekainaren 14an hil zen artio, 78 urtetan. Jaio-tzez Oskozko **Matxinekoa** zen eta gure alderdian fama puxka izan zuen, urte batzuez artziprestea ere izan baitzen.

Honek, bere senideen ezkontzak egiterakoan, esku hartze nabarmena izan zuen etxe onetako oinordekoekin ezkon araziz. Sortetxeko ilobekin ere halatsu jokatu zuen eta bere bi ilobendako Erripako **Etxeberrian** topatu zituen ezkontideak. Horrela izan ziren orde-zorde ezkondu zirenak 1835eko urriaren 11an.

Oskozko Matxineria:

Juan Vicente Azpirotz Mugiro
Maria Micaela Ripa Ezkurra

Erripako Etxeberria

Jose Lorenzo Azpirotz Mugiro
Maria Martina Ripa Ezkurra

Bi urte lehenago hasia zen lehen gerra karlista, zazpi urte iraunen zuena, boluntario karlisten eta Espainiako ejertzitoaren artean. Karlisten alderdian euskaldunen parte hartzea berebizikoa izan zen. Apezzeria ere karlisten aldekoa izan zen, oro har. Dena dela, Don Vicente Azpirotz erdi liberala zen.

Ezkontzak egin bai, baina fruiturik ez zuen ikusi, laster hil zen apez gaizoa, zazpi hilabetetara.

Erripako **Etxeberriko** etxe-koandreak izan zituen umeak, baina ez **Matxineria** ezkondu zen Maria Micaelak, honi, senarra, Juan Vicente, laster hil baitzitzaion, bi urte eskasera, 1837ko ekainean.

Horrela, alargundu ondoren, Maria Micaelak ezkondu nahi izan zuen eta etxetik atera behar izan zuen, **Matxinerako** oinordeko Juan Miguel, bere koinatua izendatu baitzuten.

Horrela, Mikela hau Arraitza ezkonduko zen 1840an, **Albirenera**, Juan Antonio Zilbeti Berueterekin, eta ume bat izan ondoren, Mikela izenekoa, bigarren aldiz alargundu zen eta senarra hartu zuen, Urritzolako **Luxeneko** Ignacio Iraizotz Aizpuruarekin ezkonduz. Honekin, gutxienez bost ume izan zituen ezkontza hitzarmen batean ikusi ahal izan dugunez, baina bizirik atera zirenak hiru izan ziren: **Jose Esteban (1846) Maria Angela (1846) eta Juana Maria Francisca (1849)**

Orain artio **Etxeberriko** bi ahizpa ai-

patu ditugu: Mikela eta Maria Martina, eta hauek bidea erakutsirik edo, hirugarrena ere etorri zitzaigun Oskotza. Zein dugu ba hirugarrena? Horiek biak horiek 1835. urtean ezkondu ziren eta hamar urteren buruan beren ahizpa Josefa ezkondu zen, 1845eko azaroaren 2an, Oskozko Juan Miguel Jauntsarats Beuntza alargunarekin, bost ume-aren aita, horietako bat ttikitan hila. Juan Miguelek 43 urte zituen eta andreak 30.

Juan Miguel jaiotzez ez zen etxaldekoa, baina **Gartzinezarre** eresia zuen ordurako eta ogibidez txokolateroa zen; bestalde, diruz oso ongi zebilena, **Gartzinezarreaz** gain bai baitzituen alor franko erosiak, Oskotzen eta Zian. Eta ondoren, pentsa, familia hazteaz gain, **Karakoetxea** erosi zuten.

Juan Miguelek eta Josefak bost ume izan zituzten eta horietako bat nexkato ttikia zenean hil zitzairen.

Tarte horretan, 1855ean, kolera izan zen eta lmozko zenbait herri-tara hedatu zen, nahiz zorionez Oskotz ez izan horien artean.

Josefa 1869an alargundu zen, 54 urtetan. Ondoren hor ibili zen Oskozko apezaren zerbitzari alaba batekin batera. Non hil zen ez dakigu, Oskotzen behintzat ez, nahiz 1888an oraindik hemen ziren biak Don Miguel Oderitz Goldaratzena apez famatuaren zerbitzuan. Ez ote ziren honekin batera joan Doneztebera?

Apezak: Gartziriaingoa eta Erripakoa, biak ahaide

Gartziriaingo semea zen Francisco Ezkurra Armendaritz 1857an etorri zen apez Oskotza, 1805ean Erripako



Oskozko eliza. XIV. mendeko ate gotikoa dugu hemen ▲



▲ Oskozko Matxinea dugu hau. San Migel Anaidikoa

Etxeberrira ezkontzaz joan zen Usiko **Joaniseneko** Maria Angela Ezkurraren iloba edo lehengusu propioa. Oskotza etorri aurretik Beltzuntzen (Txulapain) ibilia zen eta azkenik Ziaurritzen. Ziaurrizko parrokia utzi eta etorri zen Oskotza.

Don Franciscok bi iloba ttikitto ekarri zituen etxera, gero, denboraz **Ur-tetxera** eta **Matxinera** ezkonduko zirenak, Romualda eta Benita Hualde Ezkurra. Eta hauen ahizpa bat, Gartziriaindik Erripako **Karakoetxera** ezkonduko zen. Petra zeritzon.

Eta neskato horien anaia bat, Baldomero, apez estudioan oso aurretatua zegoenean, meza emateko tenorean, Oskotzen osaba laguntzen egon zen batez, oliadura ematera joan Muskizko **Santoneko bordara**, hoztu, eta pulmonia batez hil zen, 21 urtetan.

Don Francisco 1874ko urtarrilaren zazpian hil zen, oraindik zahartu gabe, 60 urte baitzituen. Oskotzen ehortzi eta 1877an lurpetik atera eta Gartziriaina eraman zuten.

Don Francisco hil aurretioan, azken karlista gerra izan genuen, 1872-1876 artean. Pobrezia baldin ba-

genuen, benetako miseria ekarriko zuen gerra honek eta lehen gerran bezala, hau ere euskaldunok galdu genuen.

Herriak apez berria ekarri behar 1874an eta Oskozko Parrokiarako bik eskatu zuten, Makirriaingo semea zen Alejandro Gastamintzak eta Egjarretako Vicente Lazkozek Gerendiainen apez zegoenak eta lehenagotik ere Oskotzen ibilitakoak.

Herrian haserrea biztu zen, batzuk Alejandro nahi eta besteak Vicente. Eta, egin ohi zen bezala, notarioarenean talde bakoitzak firmatu zuen botoak emanez. Eta hortik sortu zen haserrea, auzo edo bezino ez ziren bakarren batzuk ere eman baitzuten botoa. Erabat nahasi zen kontua eta Obispadotik kontseilua: *har ezazue beste apez bat.*

Eta orduan atera zen Oskozko Parrokiarako kandidatu berria: Jose Azpirotz Ripa, Nuinen (Txulapain) apez zegoena, Erripako **Etxeberriko** semea. 1876ko apirilaren 4an, Don Francisco hil eta bi urtera alajaina! Haserreak ez baitu gauza onik!

Don Josek bere arreba Josefa Azpirotz Ripa eta Josefa Ripa izeba, alarguna, izan zituen zerbitzari.

Apez honek ez zuen luze iraun 1885an hil baitzen oraindik oso gaztea zela, 44 urtetan. Urte horretan European kolera barratu zen eta Oskotzen ere sartu zen. Eta hor ibili zen ahal zuen bezala gure apezaren erien artean, asko eta asko izan baitzen. Horietatik hilak 14, azkena irailaren 2an. Eta koleratik libratu zen apezaren baina irailaren 22an hil



▲ Gartziriaingo Eliz ederra. XIII. mendekoa



▲ Erripako Eliz trinkoa, herriko etxe guzien gainetik. XIII. mendekoa, baina XVI. mendean oso-oso berritua

zen herriko Parrokia tuberkulosiaz. Kanposantuan lurperatu zuten aurretik meza bat eskaini ondoren hurbileko 4 apezek emana. Elizkizun handiak hurrengo hilaren 2an eta 3an izan ziren Erripan.

Esan dugu Oskozko kanposantuan ehortzi zutela, baina, bere testamentua betez, Erripara eramanen zituzten bere hezurak, legeak agindutako epea bete ondoren.

Francisco Otermin Ihabengo notarioaren aurrean egin zuen testamentua

Jose Azpirotz Ripak izan zuen aski denbora testamentua behar bezala egiteko, ongi pentsatu, notarioa ekarrarazi etxera eta honek idatziz jartzeko xehe-xehea. Bere arimaren aldeko 200 meza, bere gorputzarekin zer egin, han eta hemen jende pobreei eman dirutxoak barkatu, beste limosna batzuk Aita Santuari, Ospitaleari..., bere senideei utzitako diruen barkatzea... eta batez ere, bere arreba Josefa alargunarentzat gehientsuena. Esan bezala denetaz oroitu zen, baina zerbait atzendu behar izaten da beti eta Oskozko Elizari zor zion dirutzaz ez du deusik

esaten. Eta ez zen gutxi! 9.987,95 erreal zen zor zuena elizako kontuetan. Ez Josefa Ripak eta ez bere oinordekoek ez zituzten zorrak berehalakoan kitatuko, kostako zitzaizen kostako zitzaenez. 1917. urtean oraindik 275 pzta zor zituzten (1.100 erreal) eta elizako obretan lanean ari eta 75 pzta ordaindu zituzten. Buztana, horrelakoetan beti gelditzen baita buzтана, 192 pzta; hor geldituko ziren zor horiek betiko zeruan.

Eta bukatze aldera beste ezkontza bat

Francisco Ezkurak egindako ezkontza batzuk aipatu ditugu, baina ez denak. Adibidez, eta inportantea, **Eskaregira** egin zuena izan zen, hona ekarri baitzuen Gartziaringo kastakoa zen Antonia Godet Ezkurra, iloba propioa, Iruñean sortu eta bizitutakoa; baina honen historia eta istoriorik ez dugu gaur ekarriko, nahiz komedia franko jarri zuen emakumea izan. Besteren batean beharko du.



Txurdan

Oharrak:

XVIII. mendean ere izan zen Oskotzen Erripako baten ezkontza. Bertan bizi zen Hieronimo (sic) Ripa eta Maria Gartzarón (Erripakoa eta Gartzarongoa) baina maisterrak ziren eta ez dugu gehiagorik aztertu.

XX. mendean ere izan zen Oskozko **Matxinetik** Erripara ezkonduakoa: Joxepa Azpirotz Hualde, **Karakoetxera**.

Hiztegittoa


- **Esku hartu:** tomar parte.
- **Oinordekoa:** heredero.
- **Sortetxea=Jaiotetxea:** casa nativa.
- **Ezkontidea:** cónyuge.
- **Ordez orde ezkondu:** anai-arrebak anai-arrebekin edo hobekin esan bi senide bi senideekin.
- **Izendatu:** nombrar.
- **Etخالdea:** Etxe eta lurrak dituen, bezindadea izatez aparte.
- **Ogibidea:** lanbidea edo ofizioa.
- **Alorra=pieza:** laborerako erabiltzen den lur zatia.
- **Berebizikoa:** extraordinario.
- **Apezeria:** clero.
- **Oro har:** en general.
- **Ezkontza hitzarmena:** capítulos matrimoniales (ezkontzerakoan tratatu bat, idatziz, sinatzen zen Notarioaren aitzinean).
- **Ehortzi=lurperatu.**
- **Kontseilua:** consejo.
- **Txulapain:** Juslapena. Gartziariaren herriari **Kaxiariain** esaten zioten XX. mendearen aurrenean gure aitatxi-amatxik.



Ane Arrarasek bidaliak



Mallorca. Alazne Fdez de Muniainek bidalia



Ainara Urritzak Perutik

Aupa nextak! Zer moduz? Ni hemen Perun. Hainbat toki bisitatu ditugu; Lima, Puno, Cusco. Machu Pichu, Huaraz... Toki ederrak eta hilabete bateko esperientzia paregabea. Jende atse-gina eta arront langileak. Irailean elkartuko garelakoan, besarkada handi bat!



Engraxi eta Joanbaldar

Joandako adiskideak gogoan

Hau leitu nahi dutenentzat laguntza: beltzez jarri ditugu gure protagonistek ahoz esaten dituzten gauzak. Eta letra etzanez, eta parentesi artean, pentsatzen dituztenak.

Goiza. Eguneroko kontua. Etxekoandre xaharra sukaldean ari da. Eta nagusia oraindik goatzean. Ustez behintzat.

Asotsak beheitian? Adi-adi, Engraxi sukaldean.

(Bai, asotsak dira beheitian)

-Aaaj, Aaaaaj.

Eztula ezin hautsiz, egunero bezala, Joan. Gaur, erdi isilka jaiki eta beheitian dabil Joanbaldar.

-Hots, hots! *(Ze ote daille beittin at-tun hori!!)*

-Aaaj! Aaaj!

-Zer zailtze, zer zailtze! dena asaie ta artzanka? –Sukaldetik Engraxi

–(Atso alu hau!)

–(Ze ote daille, asaie ta zikiñe! Egunen

batian eztu gauza onik inen! Ittokarrean jartzen baita!)

Joanek altsarrak ez ditu ongi. Hala ere zigarroa du pizten.

-Aaj, aaj! Aaj-aaaaj!!!

–(Dena asaie eta zikiñe!)

–(Biarrik tabakoa! Honetxek lasaitzen niaik!!! Biarrik eta biarrik zigarroa. Eta atxo txar horrek... e'tzaiela komeni?)

Asaia, artzanka eta karkaxua! Noizbait isildu da Joanbaldar. Egin dituen lanez eta egin dituen aztarrikez da oroitzen. Hartu dituen bustialdiak, izan dituen laneko ibilaldi traketsak, diru pixar bat etxeratzeke egin behar eginahal neketsuez... horrelakoetan horietaz da oroitzen.



Berandu da. Hala deritzo Joanek eta afaltzeko asmoz sukaldera da hurbiltzen.

-Zer duu afaltzeko?

-Ongi zaude?

-Bai, bai, gosetu naiz biñepin!

-Jar zatte, jar zatte, gizajo hori!

Eta han da jartzen Joanbaldar, poliki-poliki, nahiz laneko nekerik ez, mundu guziko nekea berekin balu bezala.


-Baatxuri zopa hartuko duu.

Gizajoa Joan. Ohiturez bezala, afari arina egin eta, goatzera doa zahartzaroaren nekez eta kezkez.

–(Ez al zaiek eztule itzuliko! Ea, ongi lo in ta biar eun berri bat hasten duten!)

Eta Engraxi sukaldean da azkene-





ko lanei ekiteko. Laster da bera ere logelan.

(Engraxi, zatoz zatoz ondora, goatze hau berotzera!)

-(Gizajoa!!!)



Ongi gogoan dut Joan eta Engraxirekin beren sukaldean ardo frexkoarekin egin genuen azkeneko topa. Aspaldian joan zitzaizkidan adiskide minak.

Gutxienez, ez zenuten pandemia eza-gutu!

Egun handira artio, adiskideok!



Txurdan

Hiztegia

Hemengoak dira hitz hauek. Arruntak dira. Badakizkizu? *Galtzen, galtzen, euskara mehetzen ari zaigu zoritxarrez. Ea hitzak eta esaldiak berreskuratzen ditugun! Galdetu, dakiten zaharrei!*

Asotsa: zarata, gehienbat altsarretatik jendeak ateratzen duena.

Hots, hots!: norbaiti eragiteko edo haren arreta erdiesteko interjektioa. Edo kasu honetan, Kasu! Kontuz! Edo horrelatsuko esanahia duena.

Asaia: eztarriarekin eta ezin hats

hartuz, egiten den soinua (hiztegia ez dugu topatu).

Artzanka: hats ezin hartuz, halako eztul batzuk eginez aritzea (Hiztegia badator Hatsanka, esanahi antzetsukoa duena)

Asaia eta artzanka!: asaia eta zikina! (esaldiak).

Itokarrean: itotzeko zorian bezala.


Altsarrak: birikak, pulmones (Gure alderdian ere ibiltzen da).

Karkaxua: lapo erdaraz.

Osagarria: osasuna. Zure osagarri! Topa egiteko esaten da.



Sartu dinamikian!



iEntrena tu euskera!



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

euskara ikastaroak / cursos de euskera



Maila guztiak

Todos los niveles

Ordutegi malguak

Horarios flexibles



Talde presentzialak / Autoikaskuntza

Grupos presenciales o Autoaprendizaje

Dirulaguntzak

Becas



IMOTZ-BASABURUAKO EUSKALTEGIA

948610776 - 699704951

leitza@ika.eus



Herri kirol

apostua

"Lehia sanoa dugu gure artean eta elkarri lagundu diogu prestaketetan"

Bi ultzamarren arteko herri kirol apostu polita izan zen uztailaren 26an Zenotzen. Orein Mondragon zenoztarra eta Aritz Olague iraizoztarra aurrez aurre aritu ziren txingekin, lasterka eta aizkoran. Lagun arteko apostua izan zela eta lehia sanoa izan zutela nabarmendu zuten kirolariek. Lanak 41 minutu eta 11 segundotan bukatuta, Mondragon suertatu zen garaile. Minutu eta 42 segundora bukatu zuen Olaguek. Elkarri lagundu egin diogu Mondragoni.

Nondik nora sortu da herri kirol aposturen ideia?

Ultzamako Herri Kirol taldekoak gara biok, eta kuadrilen egunean aritzen gara urtero. Iaz, gainera, herriz herriko txapelketan aritzeko herri kirol taldea atera genuen, eta badakizu nola garen euskaldunak, hor hasi ginen elkarri zirikatzen, 'ezeztz apostu hau egin!'. Iazko San-

ferminetan izan zen, biak baiezkoa eman eta data jarri genuen.

Lehenenagotik egin izan duzue horrelakorik, edo lehendabiziko aldia zen?

Lagunekin gaztetan egiten genituen apostutxoak eta horrelako probak, baina modu honetan, serioago,

lehendabiziko aldia izan da bientzat.

Aipatu duzunez, herri kirolekin bazenuten harremana aurretik, ezta?

Bai, esan bezala kuadrilen egunerako hasi ginen, txingak egiten genituen eta Nafarroako Txapelketan ere parte hartu dugu. Taldearekin herriz herriko txapelketan ari gara.



Lagun arteko apostua izan zen Zenozkoa ▲



Aizkoraren kasuan, ez genekien ongi, eta iaz ikasi genuen Kañamarestarrekin. Aizkolarientzako aizkorekin lehendabizikoz aritu ginen, teknika ikasten. Izan ere, herri kiroleko aizkorak ez dira etxekoak bezalakoak.

Jakin al daiteke zer apostatu zenuen?

Ohorea, eta ez da gutxi! (barreak).

Zein lan egin behar izan zenituzten apostuan?

Txingekin hasi ginen, 50 kilo esku bakoitzean, eta hamar plaza egin behar genituen, 28 metro dira plaza bakoitza. Hori Zenozko frontoian izan zen. Ondoren, Arañotzera igo ginen lasterka, bi kilometro dira eta 300 metroko desnibela dago. Handik plazara buelta egin, eta bukatzeko aizkora kanaerdiko bana ebaki genuen.

Nola izan dira prestaketak?

Egunen batean elkarrekin aritu gara, batez ere aizkora egiteko, baina azken egunetan bakarka aritu ginen gehiago, bakoitza bere aldetik. Herri kirol taldearekin ostegunetan elkartzen gara, eta hor txingak egiten ditut nik. Gero, etxean ere probatu nuen txingak, lasterka eta aizkora konbinatzea.

Eta, zer moduz joan zen apostua bera? Zer nolako giroa izan zenuen, eta zein izan zen emaitza?

Egia esan, urduri geunden biok hasieran, izan ere, plaza bete-betea zegoen. Frontoian hiru lerro jende zeuden, lagun batek esan zidan sekulan ez zuela horrela ikusi Zenotz. Eta bai, horrek urduritasuna handitzen du...

Txingekin hasi ginen, eta hori nire diziplina izanik, 30 bat segundo ate-



Aizkoraren zatia erronka zuten bi apostulariek, baina ederki aritu ziren ▲

ra nizkion. Lasterka, malda handia dago gora, eta txingak egin ondoren kargatuta zoaz. Mendian lasterka aritzen den lagun batek esan zidan horrelakoetan hobe dela lasterka baino oinkada handiak emanez joatea. Beherakoan gurutzatu nuen Aritz, Iraizotz eta Zenotz artean, eta orduan zertxobai lasaitu nintzen. Aizkora biontzat berria zen, eta abantaila horrekin abiatzeak lasaitasun pixka bat eman zidan. Bera iritsi zenerako ni hasia nengoen aizkorarekin, baina nik enborrean buelta eman eta oso gutxira eman zuen berak ere. Baina, enborraren hiru laurden moztuak nituen ordu-rako nik, eta beste aldeaz azkarrago egin nuen, lehenbiziko geldituz. Minutu eta berrogehi inguru atera nizkion azkenean. Lehia polita izan zen, dena den, aizkora nahiko parekatuak gindoazela zirudien eta jendea topera aritu baitzen animatzen.

Apostuak gaizki ikusiak ere egon dira urteetan, baina, pentsatzen dut zuen kasuan lehia osasuntsua izan dela, ezta?

Bai bai, lagun arteko lehia izan da.

Esaterako, biak batera aritu gara aizkora ikasten, eta ni txingetan aritzen naizenez gehiago kontrolatzen dut, eta kontatu dizkiot zenbait trikimailu. Gero, egia da apostuaren egunean dena eman dugula eta ez diogula besteari irabazten utzi nahi izan, baina lehia oso sana da gure artean. Garai batean, baserria jokatzeko zutenean, ezin zuen horrela izan, baina gaur egun eta gure artean bai.

Apostu batek beste bat ekartzen du askotan... egon al da beste desafiorik?

Jendeak asko hitz egin zuen, baina eskua luzatzen duzunean atzera botatzen dira gehienak. Azkenean, proba nahiko berezia da, zeren, lasterkari ona izateko pisu gutxi behar duzu, baina txingetarako pisu asko, aizkora ikasi egin beharra duzu... ez da erreza. Baina tira, denbora hor dago, norbaitek hobetzeko saiakera egin nahi badu! Eta, bestela, Aritzek esan dit datorren urtean irabaziko didala, beraz, agian gu biok egiten dugu zerbait... hori bai, aurretik afaria ordaindu beharko dit!




Palestinako literatura

Liburutegian idazle palestinarren hainbat liburu ditugu. Horiek irakurtzea Palestinako herriari elkartasuna adierazteko eta laguntzeko modu bat ere bada.

Palestinako egileak irakurtzea ere herri palestinarra babesteko eta aldarrikatzeko modu egokia da, autore gehienek ezin dutelako alde batera utzi beren liburuetan herrialde honek duela hamarkadak jasaten duen okupazio, errepresio basati eta genozidio egoera.

Hombres al sol eleberrian, Gassan Kanafani idazle palestinarrek bere hiru herrikideren exodoa eta odisea kontatzen dizkigu. Izan ere, etsiturik beren herria uzteko ihes eginen dute eta – adi, spoiler! –, itota aurkituko dute heriotza, Kuwaiterako muga zeharkatzen saiatzen diren kamioiaren zisternan. Lau pertsonaiaetako bakoitzak, kamioiaren gidariarena barne, palestinar be-



launaldi bat irudikatzen du, baita Palestina 1948an okupatu zutenetik bere herriak jasan dituen sufrimendu ezberdinak ere. Hiru polizoiek gosea eta miseria, erbestea, gerra-zauriak jasan dituzte, eta estatuturik gabeko nazioen malenkonia eta ezintasuna daramate bizkarrean.

Liburua metafora bat da

Hombres al sol Pamiela argitaletxe nafarrak 1991n argitaratu zuen gurean, Pedro Osesen azalarekin eta ilustrazioekin. Palestinako literaturaren erreferentziazko lanetako bat da. Ehun orrialde baino ez ditu eleberriak baina kontatzen duen istoria oso sinbolikoa da. Hiru prota-





1972an hil zen, Beiruten egindako atentatu batean, zeinaren atzean Mossad Israelgo zerbitzu sekretuen eskua baitzegoen. Hogeita hamasei urte zituen.


Palestinako trilogia

Hombres al sol bere lana liburu-tegian dugu, egilearen beste bi lan biltzen dituen bilduma batean: **Um Saad** eta **Lo que os queda**. Trilogia Hoja de lata argitaletxeak argitaratu zuen, eta argitaletxe honek irailean egile palestinar baten beste lan baten argitalpena iragarri zuen: **Una máscara del color del cielo**, Basim Khandaqjiarena. Eleberria modu klandestinoan idatzi zen Israelgo kartzeletan, eta harekin, lehen aldiz, preso palestinar batek arabiar letren sari garrantzitsuena irabazi zuen. Nobela hau ere laster egongo da gure apalategietan.

gonistak ezkututzen diren zisternak herri palestinarrak duela hamarkada batzuetatik bizi duen infernua irudikatzen du, eta hiru gizonen amaiera tragikoak metafora bat, egunotan zentzu literal eta odoltsua hartzen duena: polizoiak itota hilko dira sagu-zulo horretan (gaur egungo Gaza identifikatzea ez zaigu zaila egiten). Bestalde, Kanafani, idazlea izateaz gain, FPLP, Palestina Askatzeko Herri Frontearen sortzaile eta bozeramailea izan zen.



Hoja de lata-n ere argitaratu zen **Un detalle menor**, Adania Shibli idazlearen eleberria, benetako kasu bat kontatzen duena: soldadu israeldarrak 1948an (hau da, Israelgo estatua sortu eta urtebetera) emakume bat atxilotu eta bortxatu zutenekoa. Eleberria Frankforteko liburu azo-



kan saritu zuten 2022an, baina saria kendu egin zioten, ulertezina bada ere, Gazako egungo erasoaldia hasi ondoren.

Saiakera eta olerkia ere bai

Palestina, anatomía de un genocidio saiakeran, 2022ko urritik Gazak jasaten duen izugarrikeriari buruzko hainbat intelektualen gogoetak jasotzen dira. Liburuan, gainera, egile palestinarrek zein juduek parte hartzen dute.

Azkenik, komikigintzak ere landu du gaia. Besteak beste, **Reportajes**, non Joe Sacco marrazkilari ospetsuak kapitulu bat Palestinari eskaintzen dion.

Reportajes eta lehen aipatutako liburu guztiak eskura dituzue liburutegian.

Eta, amaitzeko, esteka bat. Mahmud Darwish Palestinako poeta nabarmena izan denaren zenbait poema euskaraz irakurtzeko:

<https://armiarma.eus/emailuak/poetak/darwish.htm>

Patxi Irurzun



2025eko ekaina eta uztaila

2025eko ekainean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

BASABURUA

Igoa

Iradi Mariezkurrena Etaio, ekainaren 25ean jaio zen. Andoni eta Sarairen alaba.



▲ Iradik badu babesa

ULTZAMA

Alkotz

Ibai Primo Ziganda, Beñat eta Itziarren semea, ekainaren 10ean sortu zen.

Ilarregi

Aratz Osinaga Mateo, Gorka eta Noraren semea, Ilarregiko **Bentaberrian** sortu zen ekainaren 3an.



▲ Aratz, Ilarregikoa

Ezkontzak:

ATETZ

Beratsain

Iosu Segura Mendoza, Iruñea-Txantreakoa, eta Ixa Olo Alkasena, **Karakoetxekoa**, ekainaren 21ean ezkondu ziren.



▲ Iosu Segura eta Ixa Olo

ULTZAMA

Arraitz

Aitor Gelbentzu Escudero, Arraizkoa, eta Laura Andueza Eratsun, Iruñekoa, **maia-tzaren** 17an ezkondu ziren. Arraizko **Martinean** bizi dira.



▲ Aitor eta Laura

“Aupa bat gure gurasoei!”

“Zorion guzia ezkonberriei!”



Heriotzak:

BASABURUA Beruete

Mercedes Azpirotz Garro, **Arotzeneko** alaba, ekainaren 27an hil zen 96 urtetan.



▲ Mertxe Arangoa

ULTZAMA Zenotz-Etxaleku

Miguel Joxe Sarasa Erbiti, Etxalekuko **Domikeneko** semea, ekainaren 3an hil zen 80 urtetan. Beatriz Etxegiaren senarra.



▲ Miel Joxe Sarasa

“ Beti izanen
zaituztegu
gogoan ”

2025eko uztailean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

LANTZ

Aimar Ariztegi Lakuntza, uztailaren 25ean sortu zen. Iñaki eta Virginiaren semea.



▲ Carlos eta Martin, Aimar anaitxoarekin

ULTZAMA Arraitz

Ane Iraola Huarritz, Joseba eta Amaia-rena alaba, uztailaren 15ean sortu zen **Santsiñenean**.



▲ Ane, Arraizko ttikiena

Larraintzar

Laia Doray Mendibe, Asier eta Yaizaren alaba, **Apeztegian** sortu zen uztailaren 23an.



▲ Laia, anaiaren altzoan

“ Aupa bat gure
gurasoei! ”



2025eko

ekaina eta uztaila

Heriotzak:

BASABURUA Beruete

Cruz Otxotorena Beuntza, **Sagastiberriko** nagusia, uztailaren 19an hil zen 74 urtetan.



▲ Cruz Otxotorena

Gartzaron

Blanca Esther Jaunarena Ezkurra, **Joan-garreneko** etxekoandrea, uztailaren 31an hil zen 63 urtetan.



▲ Esther Jaunarena

Igoa

Angel Martikorena Lasarte, "Igoako bertsolaria", **Etxeberriko** nagusia, uztailaren 21an hil zen 82 urtetan.



▲ Angel, Igoako bertsolaria

Itsaso

Rosalía Ilarregi Aldaregia, **Etxeberriko** etxekoandrea zaharra, uztailaren 22an hil zen.



▲ Rosalía Ilarregi

IMOTZ Muskitz

Mertxe Alberdi Olabegoia, **Errandoneko** etxekoandrea, uztailaren 18an hil zen 79 urtetan.



▲ Mertxe Alberdi

“ Beti izanen
zaituztegu
gogoan ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





Ultzamako AEK EUSKARA-IKASTAROAK

MAILA GUZTIAK

AZTERKETAK prestatzeko ikastaroak (B1, B2, C1/EGA,C2)

Taldea edo autoikaskuntza

Goizez eta arratsaldez

Izena emateko azken eguna irailaren 22a

Informazioa eta izena ematea

948 60 47 04 edo 607 622 102

larraun@aec.eus

DIRULAGUNTZAK

Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak